

**NAFARROAKO EUSKARA KONTSEILUARI**



## NAFARROAKO EUSKARA KONTSEILUARI

*Nafarroako Euskara Kontseiluak txostena egin behar du aurretik proposatutako Foru Dekretuaren testuari buruz, eta Euskaltzaindiko ordezkariak azaldu nahi dute zein izango den euren botoa*

Euskaltzaindiak ordezkariak ditu Nafarroako Euskara Kontseiluan, eta, ordezkaritza horrek dituen Erakunde-ezaugarriak kontuan hartuta, Euskaltzaindiak agerrarazi nahi du zein izango den bere botoa eta horren arrazoiak.

Ildo horretatik, Euskaltzaindiaren ordezkariak hurrengo kontu hauek azpimarratu nahi dituzte:

1. Botoa emateko orduan, izaera bikoitza bereganatzen dute:

1.a) Alde batetik, Euskaltzaindiaren ordezkariak dira. Nafarroako Foru Diputazioak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiekin batera, Erakunde ofizial hori sortu zuen 1918. urtean. 573/1976 Dekretuaren bidez, Euskaltzaindiari Euskararen Errege Akademia izatea aitortu zitzaion. Akademia horren jarduera-eremua Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako probintzietara hedatzen da. Berriki, 272/2000 Errege Dekretuak berretsi egin du aurreko hori. Are gehiago, 272/2000 Errege Dekretuaren 1. artikulua hiru helburu hauek jarri ditu, besteak beste, Euskaltzaindiaren ardurapean:

– *Hizkuntza-eskubideak zaintzea.*

– *Euskararen erabilera sustatzea.*

– *Hiztunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea, euskara maila guztietara zabaldu eta guztion komunikabide izan dadin.*

1.b) Beste alde batetik, Nafarroako Euskara Kontseilu honen kideak dira. 135/1996 Foru Dekretuak sortu zuen kontseilu hori, eta haren 4. artikulua hurrengo eginkizunak aitortzen dizkio Kontseiluari: *hizkuntza-normalizazioa*, eta *euskara erabili eta sustatzea*.

2. Euskaltzaindiari ez dagokio dekretuaren testua aztertzea politikaren edo administrazioaren ikusmiraren egokieratik, hori Nafarroako Gobernuaren eskumenekoa baita.

3. Euskaltzaindiak bere botoa eman eta bere iritzia azaltzen du, Foru Dekretu berria indarrean jartzeak Nafarroako Foru Komunitatean euskarak duen

egoerari kalte egin diezaiokeelakoan, testua dagoen-dagoenean onetsiz gero bederen.

Bide horretatik, Euskaltzaindiak hauxe adierazi nahi du:

3.1. Proposatutako testuak murriztu egiten ditu Euskarari buruzko 18/1986 Legean ezarritako oinarriko helburuak. Izan ere, testu horren hitzaurreak hauxe aldarrikatzen du:

«Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz».

Bestalde, foru-lege berberak, lehendabiziko artikuluan, hitzez hitz aipatzen ditu legearen beraren funtsezko helburuak. Horien artean, honako hauek aipa daitezke:

– *Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.*

– *Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.*

3.2. Proposatutako testuak isildu egiten ditu 135/1994 Foru Dekretuan egindako aipamen batzuk. Aipamen horiek euskara arautzeko esparruari buruzkoak dira, eta puntu hauetan labur daitezke:

– Euskara Nafarroako berezko hizkuntza da; areago oraindik, euskal guanean, hizkuntza ofiziala da. (Hitzaurrea).

– *Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, 1992ko ekainaren 25ean, Eskualdeetako Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxiagotuen Europako Gutuna onetsi zuen, eta gutun horrek konbentzio-maila du. Urte bereko azaroaren 5ean, hamaika estatu kidek gutun hori sinatu zuten; horien artean, Espainiako estatuak. Bereziki aipatzekoak dira haren 10. artikuluan administrazio-agintariei eta herri-zerbitzuei buruz jasotako gomendioak. (Hitzaurrea).*

– *Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuen arteko koordinazio organo gisa aritzea, hizkuntza plangintza prestatzeari dagokionez. Halaber, langidetzan ariko da toki entitateekin eta bertzelako administrazio publikoekin, hala eskatzen badute (4. artikulua). Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko eremu mistoan, eta, zehatzago, bertako administrazioaren zerbitzu nagusietan, administrazio zirkuitu elebidunak ezarriko dira, erabiltzaileak hala nahi duenean bere zerbitzuak euskaraz eman ahal izatea bermatzeko aski (12.3 artikulua).*


– Eremu mistoan, agiriak, inprimakiak, irudiak, oharrak, argitalpenak eta abarrekoak *elebitan idatzi beharko dira* edo *elebitako erabilerara joko da* (12, 13, 14, 15 eta 16. artikulua).

– Euskara jakitea nahitaezkoa da lanpostu jakin batzuk eskuratzeko; orobat, euskal eremutik Nafarroako beste eremuetara joateko funtzionario-lehiaketan parte har daiteke; euskara jakitea ehunekoetan balioetsi behar da, Nafarroako Foru Administrazioaren lanpostu jakin batzuk eskuratzeko eta hurrengo lehiaketetan parte hartzeko (18, 19, 20, 21, 22 eta 23. artikulua).


4. Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala da euskarari dagozkionetan, eta Nafarroako Foru Komunitatearen Euskarari buruzko Legeak hala aitortzen du. Euskararen Errege Akademiak berriro adierazi nahi du bera prest dagoela Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean aritzeko, baldin eta, bi erakundeon arteko harremani esker, euskara landu eta garatu nahi bada, Nafarroako Foru Komunitateko berezko hizkuntza izategatik dagozkion mailaren arabera.

5. Aurreko ohar horiek guztiak Euskaltzaindiak egiten dituen azalpenak dira proposatutako Foru Dekretuari ezezko botoa emateko. Halaber, Euskaltzaindiaren eskaria da idazki hau bileraren aktari eranstea.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean.



Stua.: Jean Haritschelhar Duhalde



Stua.: Andres Iñigo Ariztegi

## AL CONSEJO NAVARRO DEL EUSKERA

### *Explicación de voto que formulan los representantes de Euskaltzaindia al texto del Decreto propuesto para informe al Consejo Navarro del Euskera*

Euskaltzaindia desea dejar constancia del sentido de su voto dadas las características institucionales que concurren en su presencia en el Consejo Navarro del Euskera.

En este sentido, los representantes de Euskaltzaindia quieren subrayar los siguientes extremos:

1. Emiten su voto en una doble condición:

– 1.a) Como representantes de Euskaltzaindia, institución oficial creada en 1918 por la Diputación Foral de Navarra, juntamente con las de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, reconocida por Decreto 573/1976 como Real Academia de la Lengua Vasca cuyo ámbito de actuación se extiende a las provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, decreto que ha sido ratificado recientemente por el Real Decreto 272/2000, en cuyo artículo 1.º se le encomienda expresamente, entre otros, estos tres fines:

– *Velar por los derechos lingüísticos.*

– *Promover su uso.*

– *Trabajar en la capacitación de la lengua a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles.*

1.b) Y como miembros de este Consejo Navarro del Euskera, al que el Decreto Foral 135/1996 por el que se creó le atribuye en su artículo 4.º las funciones tendentes a la *normalización lingüística* y al *uso y fomento del euskera*.

2. Euskaltzaindia no entra a valorar la oportunidad política o de gobierno del Decreto Foral propuesto, que es competencia del Gobierno de Navarra.

3. Euskaltzaindia emite su voto y justifica su opinión únicamente desde la perspectiva del efecto negativo en la situación del euskera en la Comunidad Foral de Navarra que puede suponer la entrada en vigor del nuevo Decreto, en base al texto propuesto.

En este sentido, Euskaltzaindia constata:

3.1. El texto propuesto modula de forma restrictiva los objetivos esenciales establecidos en la Ley del Vascuence 18/1986. Afirma este texto en su Preámbulo:

«Aquellas Comunidades que, como Navarra, se honran en disponer en su patrimonio de más de una lengua, están obligadas a preservar este tesoro y evitar su deterioro o pérdida. Mas la protección de tal patrimonio no puede ni debe ejercerse desde la confrontación y oposición de las lenguas sino, como establece el artículo 3.3 de la Constitución, reconociendo en ellas un patrimonio cultural que debe ser objeto de especial respeto y protección».

Por otra parte, esta misma ley foral, en su artículo 1.º dice textualmente que son objetivos esenciales de la ley:

– *Amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence y definir los instrumentos para hacerlo efectivo.*

– *Proteger la recuperación y el desarrollo del vascuence en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso.*

3.2. El texto propuesto omite una serie de referencias que realiza el Decreto Foral 135/1994 en el ámbito de la regulación del euskera:

– *Al carácter del vascuence de ser lengua propia de Navarra y de ser lengua oficial en la zona vascófona. (Preámbulo).*

– *A la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias del Comité de Ministros del Consejo de Europa, adoptada el 25 de junio de 1992, con rango de convención, por el Comité de Ministros del Consejo de Europa y firmada el 5 de noviembre del mismo año por once estados miembros, entre ellos el español, y de modo particular las recomendaciones contenidas en su artículo 10 sobre autoridades administrativas y servicios públicos. (Preámbulo).*

– *Al cometido expreso de la Dirección General de Política Lingüística para actuar como órgano coordinador entre los Departamentos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra en lo que se refiere a la elaboración de la planificación lingüística (artículo 1.º.2.c), así como su colaboración en la elaboración de la planificación lingüística de las entidades locales y otras administraciones públicas (artículo 4.º) y al establecimiento de los circuitos administrativos bilingües que garanticen suficientemente la prestación de sus servicios en vascuence cuando el usuario así lo requiera en los servicios centrales de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra de la zona mixta (artículo 12.º.3).*


– *Se redactará de forma bilingüe o se tenderá a la redacción de forma bilingüe en documentos, impresos, imagen, avisos, publicaciones, etc. en la zona mixta (artículos 12, 13, 14, 15 y 16).*

– A la preceptividad del conocimiento del vascuence para el acceso a determinados puestos de trabajo, a la posibilidad de concursar desde la zona vascofona a otras zonas de Navarra, a la valoración porcentual del conocimiento del euskera para el acceso a puestos de trabajo en la Administración Foral de Navarra y para concursos posteriores (artículos 18, 19, 20, 21, 22 y 23).


4. Euskaltzaindia, como institución consultiva oficial en materia de euskera, reconocida por la Ley del Vascuence citada, reitera su disposición a colaborar con el Gobierno de Navarra desde la perspectiva de una relación entre ambas instituciones que permita el cultivo y desarrollo del euskera con el rango que le corresponde como lengua propia de la Comunidad Foral de Navarra.

5. Con arreglo a las consideraciones anteriores, Euskaltzaindia formula esta explicación de su voto negativo al Decreto Foral propuesto y solicita se incorpore este escrito al acta de esta reunión.

Pamplona, 30 de octubre de 2002.



Fdo.: *Jean Haritschelhar Duhalde*



Fdo.: *Andres Iñigo Ariztegi*